txintxarri

2019-01-24 OSTIRALA / 1491. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Danborrak astinduz, gozatu ederra

Danborradak egin zituzten, iragan ostiralean, Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxeetako ikasleek / 8-9

TXINTXARRI

Osteguneko, greba

Lasarte-Oriako greba batzordeak herrian egingo diren mobilizazioak aurkeztu ditu / 6

M. Berasategi senide-negozioaz hitz egin du Leire Berasategi herritarrak EiTBko Txoriene saioan / 4

Naroa Furundarena atleta gazteak Espainiako txapelketarako gutxienekoa lortu du / 10

LASARTE-ORIAKO UDAL EUSKALTEGIA

IKASTURTE ERDIRAKO MATRIKULA

Presentzialak:
- A0 (hasierako maila) ez dugu onartzen irailera arte.
- A1: 09:00-11:30 eta 16:30-19:00
- B1: 09:00-11:30 eta 15:00-17:30
- B2: 09:00-11:30; 15:00-17:30 eta 18:30-21:00
- C1: 09:00-11:30; 15:00-17:30 eta 18:30-21:00

Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu.
Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan.
Plaza kopuru mugatua.

IZEN EMATEA:
Urtarrilaren 7tik 31ra

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - Bekokale bidea, 1 · BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00

Astelehenero bezala, aldarrikapenak kalera

Ehun bat pertsona elkartu dira Okendo plazan, pentsio duinen aldeko protesta ekitaldian. "Itxaropentsu" daude, baina ez konforme: "Borrokan jarraituko dugu, gure aldarrikapen nagusiak betetzen direla ikusi arte", adierazi dute koordinakundeko kideek

Txintxarri

Urtarrilaren 20a, astelehena. San Sebastian eguna. Donostiara joan eta danborradaz gozatzeko baliatu dute eguna zenbaitek; herriko pentsionistek, ordea, asteleheneroko hitzorduari eutsi diote, eta euren aldarriak kalera eraman dituzte beste behin.

Pasa den astean egin bezala, Lasarte-Oriako Pentsionista eta Erretiratuen Koordinakundeko kideek nabarmendu dute "itxaropentsu" daudela, Espainiar estatuan sortu den koalizioko gobernuak euren eskaerak aintzat hartuko dituelakoan. "Pentsioak %0,9 igotzea adostu du ministro-kontseilu berriak, KPIa 2020an zehar portzentaje hori baino gehiago igoz gero, berrikusteko klausula bat ezarriz", azaldu dute. "Neurri horren atzetik beste asko etortzea espero dugu", gehitu dute.

Euren aldarrikapen nagusiak zeintzuk diren azaldu dute: 1.080 euroko gutxieneko pentsioak lortzea; KPIa bezainbeste igotzea pentsioak urtero, gutxienez; generoen arteko arrakala desagertzea; eta Pentsio Sistema Publikoaren bideragarritasuna ziurtatuko duen finantzazio politika bat diseinatzea, besteak beste. "Borrokan jarraituko dugu, gure eskaera garrantzitsuenak lortu arte; batasuna ezinbestekoa da gure helburuak lortzeko".

Lasarte-Oriako pentsionistak kalera atera dira aste honetan ere. TXINTXARRI

Greba orokorra hizpide

Elkartzen diren bakoitzean mikrofonoa herritarren eskura jartzen dute koordinakundeko kideek. Joxe Manuel Aranburu eta Xabier Orozek hartu dute hitz egiteko txanda. Urtarrilaren 30erako deituta dagoen greba orokorreko ekintzekin bat egitera animatu dituzte lasarteoriatarrak. "Ezin dugu greba egin, baina parte har dezakegu ekintzetan".

Pentsionisten koordinakundeak adierazi zuen lehenengo astean ez zuela aldeko edo aurkako jarrerarik hartuko; herritarren esku utzi du greban parte hartu edo ez erabakitzeko aukera. Horri lotuta, prentsaurreko bat egingo du gaur, ostiralez, Euskadiko Pentsionisten Mugimenduak, Bilbon, Bolunta egoitzan, 11:30ean. Herriko koordinakundeko zenbait kidek bat egin dute deialdiarekin. Txintxarri-ri helarazitako mezuan, honakoa diote: "Pentsionisten sektore konkretu batek, mugimendu osoaren izenean, greba deitu izanak, arriskuan jar dezake kolektibo osoaren aldarrikapenen biziraupena".

Gipuzkoako batzarkide Esti Elduaien gonbidatu zuen Lasarte-Oriako EH Bilduk. TXINTXARRI

Egungo testuinguru politikoa eta etorkizuna hizpide

Herri batzarra egin du Lasarte-Oriako EH Bilduk, Antonio Merceron; Estitxu Elduaien batzarkidea gonbidatu dute

Txintxarri

Hainbat gai jarri ditu mahai gainean Lasarte-Oriako EH Bilduk asteon, herritarrekin batera hausnartzeko: egungo testuinguru politikoa; zein toki betetzen duen EH Bilduk bertan; Espainiar estatuarekiko harreman; eta EAEko hauteskundeak, besteak beste. Gipuzkoako batzarkide Esti Elduaien gonbidatu dute saiora; EH Bilduk batzar nagusietan duen ordezkarietako bat da azpeitiarra. Kazetari gisa aritu zen urte luzez, eta zinegotzi sartu zen gero, Azpeitiako Udalean, aurreko legealdian.

Astearte arratsaldeko saioaren dinamika honakoa izan zen: arestian aipatutako gaiez luze eta zabal aritu zen Elduaien, EH Bildu alderdiak egindako irakurketak transmitituz, baina, tartean, Antonio Mercero aretora joan ziren herritarren iritziak eta ekarpenak entzunez. Moderatzaile lanak Leire Elizegi herritarrak egin zituen.

Egungo testuinguru politikoa errepasatuz ekin zioten batzarrari. Espainiar estatuan eratu berri den koalizio gobernuari buruz, adierazi zuen aldaketa batzuk egiteko promesa egin dutela, baina horiek ez direla egiturazkoak izango. "Gobernu hori zelofana kentzen hasten denean, ikusiko da Espainiako establishmentaren alde egingo dutela; Euskal Herri burujabe eta demokratiko baten alde egiteko beharra agerian geratuko da".

Horri lotuta, Elduaienek adierazi zuen "hautsi" egin behar dela "ezkerreko nazio subiranistek" Espainiar estatuarekiko duten menpekotasun harremana. "Fase autonomista behingoz gainditu beharrean gaude; hurrengo hitzordu elektoralak eta gure oinarriaren lana helburu horren zerbitzura jartzera goaz".

Igogailuen proiektuak idazteko lanak, adjudikatuta

Zabaletan eta Kale Nagusian egingo dituzte; lau hilabete ditu I-Ingenia enpresak exekuzio proiektuak prestatzeko

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du adjudikatu dituela Zabaletako eta Kale Nagusiko igogailuen proiektuak idazteko lanak. I-Ingenia ingeniaritza enpresak landuko ditu txosten horiek, eta, beranduenez, lau hilabeteko epean entregatu. 54.036 euro bideratu ditu udalak horretara.

Bi igogailuen inguruko zenbait xehetasun eman ditu udalak. Esate baterako, 2018an onartutako Irisgarritasun Planaren parte direla. Oriarte institutuko Larrekoetxe eraikin atzealdetik Zabaleta auzorainoko bidea egingo du lehen igogailuak. Bigarrena, berriz, Kale Nagusitik Goikale eta Oztaranen goialdera iristeko eraikiko dute.

Bigarren igogailu horren eraikuntzak "fase bat baino gehiago" izatea aurreikusten du udalak. Goikale eta Oztaranera joango da aurrena. "Zataraingo sarbidea konpondu beharko da hori eta gero", nabarmendu udalak ohar bidez.

Txotx denboraldia irekita, sagardo denboraldia martxan

Martxan da aurtengo sagardo denboraldia. Urtarrilaren 15ean ireki dute txotx denboraldia, Astigarragako Sagardoetxea Sagardoaren Museoan. Izaro Andres abeslaria arduratu da 2020. urteko denboraldia martxan jartzeaz.

Sagardo "orekatua eta fruta freskoaren usaina duena" dastatu ahal izango da sagardotegietan. Horrekin batera, aurreko urteetakoa baino "kolore alaiagoa, usaimen garbia eta karboniko maila ona" izango du edariak. 2019ko uztarekin, guztira hamabi milioi litro sagardo ekoitzi dira Euskal Herrian, eta horietatik 8,5 milioi, bertako sagarrarekin, Euskal Herrikoarekin.

Lasarte-Oriako Otegi eta Astiazaran sagargotegietan denboraldiaz gozatu ahalko da urtarriletik hasi eta apirila-maiatzera arte.

'Oporrak Bakean' egitasmoa, martxan

Lasarte-Oriako Udalak 'Oporrak Bakean' proiektu solidarioan parte hartzeko deia egin du: zortzi familia behar ditu, udan oporrak pasatzera Lasarte-Oriara etortzen diren haur saharar arrak hartzeko; gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan

Txintxarri

Tindufeko errefuxiatu kanpalekuetako (Aljeria) baldintzak oso gogorrak dira han bizi diren milaka eta milaka saharar arrentzat, urte osoan zehar. Are gehiago udan. Hori dela eta, *Oporrak Bakean* egitasmoa sortu zuen Fronte Polisarioaren Euskadiko Ordezkaritzak; aukera ematen die kanpaleku horietan bizi diren zortzi eta hamabi urte bitarteko haurrei udako oporraldia pasatzera etortzeko. Hainbat elkarte, eragile, udal eta familiak parte hartzen dute programa horretan.

Zortzi familia lasarteoriatar behar ditu 'Oporrak Bakean' proiektuak. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak adierazi du zortzi familia lasarteoriatar behar dituela, haur horiek hartu eta uztaila eta abuztua elkarrekin pasatzeko. Interesa duten familiek gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan. 650 488 108 telefonora deitu dezakete, edo, bestela, *gizartez@lasarte-oria.org* helbide elektronikora idatzi.

Hainbat helburu ditu *Oporrak Bakean* egitasmoak: Tindufeko kanpalekuetan bizi diren haurrei aukera ematea euren egoera latz horretatik pare bat hilabetez ateratzea; euren osasun egoera zein den ikusteko azterketa mediku orokorrak egitea; eta haur horiek indarberritzea, zeregin horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak euren eskura jarriz.

Erreferendumaren zain

Tindufen bizi diren saharar rek 40 urte baino gehiago daramatzate han. Euren sorterritik ihes egin behar izan zuten, Mendebaldeko Saharatik, 1975. urtean, Marokoko eta Mauritaniako armaden eraso eta legez kanpoko okupazioaren ondoren. Argeliara joan ziren milaka pertsona, eta bertan bizitzen hasi, ahal zuten bezala.

Fronte Polisarioa, Mendebaldeko Sahararen nazio askapenerako mugimendua, 1973an sortu zen. Handik hiru urtera, SEAD Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa. Urte ugari eman zituzten gerran Mauritania eta Marokorekin. 1979an eta 1991n sinatu zituzten su-etenak bi herrialde inbaditzaileekin, hurrenez hurren. Hori baino lehen, 1987an, Marokok 2.700 kilometroko horma bat eraikitzeko lanak bukatu zituen Mendebaldeko Saharan, lurralde okupatuak besteengandik bereizi eta errefuxiatuen itzulera saihesteko. Marokorekin su-etena sinatu eta gutxira, autodeterminazio erreferendum bat antolatzeko urratsak egiten hasi zen NBE, baina oraindik ez dute euren etorkizunari buruz erabakitzeko aukerarik izan.

NEURE KABUZ

MIKEL YARZA ARTOLA

Agintearen ardura

Hiru urte eta erdirako hartu du aginte makila, lasarteoriatar bakar batek ere kargu horretarako bozkatu ez zuen arren. Ez da nolanahiko ardura, egun batetik bestera herriko alkate bilakatzea. Ustelkeriak zipriztindutako alderdia berritzera etorri zen figura gaztearen ondorengo izateak ere badu garrantzia.

Erronkak erronka, konpromisoa adierazi du Agustin Valdiviak Txintxarri aldizkariari eskainitako lehen elkarrizketan. Herriko eragile eta elkarteekin gertukoa izateko nahia, baita parte hartzea sustatzekoa ere. Zilegi da konpromiso horiek adieraztea, beste kontu bat hitzak ekintza bilakatzea. Interes alderdikoetatik harago, herritarrentzat baliagarri diren erabakiak hartzea. Zentzu horretan, udalaren jarduna barrenetik eraberritzeko beharra azpimarratu du alkateak. Eta berri ona litzateke hori, instituzioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetuko balu. Sarri korapilo burokratikoan harrapatuta geratu ohi diren bizilagunen jarduna erraztuko balu.

Hirigintza alorretik dator Valdivia, eta argi utzi du azpiegiturak izango dituela lehentasun legealdi honetan. Baina azpiegitura ororen oinarrian pertsonak daude, askotariko asmo eta proiektuen alde lanean dabiltzan norbanakoak eta kolektiboak. Eurei jaramon egin eta benetako lankidetza sustatzea behar luke alkatearen ardura ariketarik funtsezkoenak. Adi-adi izango dituen herritarrek merezi duten oinarrizko keinua. Leuna izan bedi, arduraren pisua.

Herri kontsulta, hiri hondakinen galdeketa egin aurretik

Hiri-hondakinak biltzeko zabor-ontziei buruzko herri-kontsulta egitea erabaki du Lasarte-Oriako Udalak. Berme guztiak izateko, ordea, Espainiako Ministroen Kontseiluak onetsi behar du, baina hori baino lehen, udalbatzarrak galdera eta galdeketaren baldintzak zehazten dituen eskaera onartu behar du. Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Legearen arabera, baldintzak lantzeko beharrezkoa da lehenik herritarren proposamenak jasotzea.

Horregatik, ekarpenak edo proposamenak egin nahi dituzten herritarrek Udaleko Erregistroan idatzi bat aurkeztu beharko dute. Herritarren Parte-hartzearen atalean egin ahal izango da, edo partehartzea@lasarte-oria.eus helbideera mezu bat bidalita ere egin daitezke iradokizunak.

Urtarrilaren 30a, datorren osteguna, izango da lasarteoriatarren iritziak jasotzeko azken eguna.

Leire Berasategiren kafea, EiTBko Txorienen

LEIRE BERASATEGI M. BERASATEGI KAFEAK

Bi errezeta osatzeko kafea egin du, eta edaria modu egokian prestatzeko hainbat aholku eman dizkio TXINTXARRI-ri. Datorren ostiralean emango dute telebistan, 15:00etan

Maddi Zaldua

Nork ez dio sekula gertukoren bati kafetxo bat hartzeko proposamenik egin? Otorduen ostean ere, gehienetan ez du hutsik egiten edariak. Batzuek hutsa eta beste batzuek esnearekin –edo beste hainbat osagairekin– konbinatu ohi dute. Bakoitzak bere gustuen arabera prestatu ohi du, baina, kasu gehientsuenetan, "prestaketak behar adina arretarik jarri gabe" zerbitzatu ohi dira kafeak. Horrela azaldu du Leire Berasategi (Lasarte-Oria, 1983) EiTBko *Txoriene* saioan. M. Berasategi kafe dendako hirugarren generazioa da, eta telebista saioan aritu da senide-negozioaz hizketan. Kafea ere egin du bi plater ezberdin prestatzeko. Datorren ostiralean ikusi ahal izango dute ikus-entzuleek, eguerdiko 15:00etan.

Berasategik telebistan bizitako esperientziaren berri emateko bildu da Txintxarri aldizkariarekin, eta azaldu du "uste baino hobeto" moldatu dela kamara aurrean: "Bezperako egunetan, zertxobait urduri nengoen, baina behin grabaketa hasita, eta Zigor Iturrietaren –saioaren aurkezlea– laguntzarekin, oso ondo moldatu gara".

Bi plater kozinatu dituzte; brokoli, azalore, porru eta otarrainxka entsalada epela kafe ozpin olioarekin eta kafe krema txantilliarekin. Bietan erabili dute kafea, eta hori prestatzeko bere jakinduria eta esperientzia erabili ditu Berasategik; kafea behar bezala egitea "ezinbestekoa" baita kafe "onaz" gozatzeko.

Txoriene saioan izan da Leire Berasategi lasarteoriatarra. LEIRE BERASATEGI

Kalitatezko produktuez gain, kafe-makina bakoitzaren erabilera zehatz bat egin behar dela azpimarratu du. "Kafearen erre zaporea ekiditeko, garbitasuna mantentzea oso garrantzitsua da". Telebista saioan, kafetera italiar batean egin du edaria Berasategik, eta horren erabilera egokia egiteko aholkuak eman dizkio aldizkariari. Ura, kafeteran jarri aurretik 92 gradutara berotzea gomendatu du Berasategik, eta horrekin batera, kafea ez zapaltzea: "behatzarekin soberan dagoena kendu eta listo bestela urak erresistentzia handia gainditu beharko du igotzeko, eta horrek kafea erretzea eragin dezake". Horrez gain, jarraitu beharreko azken pauso bat ere gehitu du; tapa irekita uztea. "Horrela, kafea igotzen den momentuan bertan konturatuko gara, eta horrekin ere, kafea erretzea ekidingo dugu".

Datorren urtean 60 urte beteko ditu senide-negozioak, eta ziur, orain arte bezala, bezeroen beharrak gertutasunez asetzen jarraituko dutela.

Iragan urteko bertso afari literarioko artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

Bertsoa eta literatura uztartuko dituzte otsailaren 8an Xirimirin

Irakurle Txokoak antolatutako bertso afari literarioaz gozatzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek

Txintxarri

Bertso doinuekin eta literatur hitzekin emango diote hasiera Irakurle Txokoko lagunek otsailari, hilaren 8rako, larunbatez, bertso afari literarioa antolatu baitute. Seigarren edizioa izango da aurtengoa.

Ane Labaka bertsolari lasarteoriatarra arituko da mikrofonoaren aurrean, eta berarekin batera baita Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi ere. Iñigo Astiz arduratuko da gaiak jartzeaz, eta literatur pasarteak txertatzeaz.

Bertso eta literatura saioarekin batera, afaria ere izango da. Elkartean sukaldatu eta bertan otordu goxoaz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

100 sarrera jarri dituzte salgai, baina antolatzaileek jakinarazi dutenez, dagoeneko saldu dira.

Muzikoak dantzatzeko aukera, igandean Okendon

Urte berriko lehen plaza dantza saioa egingo dute igandean, Okendo plazan. Bi orduko saioa izango da; 12:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da. Eguraldi hotzari aurre hartu, eta gorputzak berotzeko aitzakia ederra izango da, beraz, asteburuan.

Lasarteoriatarrei eta inguruko herritarrek parte hartu ahal izango dute ekintza irekian, eta antolatzaileek dei egin dute dantzara animatu daitezen.

Astean bi egunetan egin ohi dituzte entseguak; astearte eta asteazkenetan (hasiberrientzat), eta horietara joateko aukera ere zabaldu dute. Sasoeta ikastetxeko gimnasioan egiten dira dantza saioak, 20:00etatik 21:30era.

"Lurraldebus zerbitzuan, murrizketarik ez"

Lasarte-Oriako EAJk Buruntzaldeako herri arteko garraio zerbitzuaren esleipen berriak izango dituen aldaketen berri eman du. Mugikortasun Udal Plana legealdi honetan martxan jartzeko eskaera ere egin dio Agustin Valdivia alkate berriari

Txintxarri

Buruntzaldeako herri arteko garraio zerbitzuaren esleipenaren berri izan du Lasarte-Oriako EAJ udal taldeak, eta, lizitazio berriarekin, lasarteoriatarrak "lasai" egon daitezkeela jakitera eman du Jon Antxordoki alderdiko bozeramaileak.

Antxordokik azaldu duenez "Tolosa-Donostia linea, Andoain eta Lasarte-Oriatik igarotzen dena, egunean 162 zerbitzu izatetik 173 zerbitzu izatera pasako da; Lasarte-Oriatik Donostiara doan lineak 46 zerbitzu berri izango ditu eta, batez ere, asteburuetan ospitaleetara joateko autobus zuzena izango dugu, 46 zerbitzurekin."

Gogor egin du esleipen berriak murrizketak ekarriko zituela adierazi zuten alderdi, plataforma eta gizarte eragileen aurka. "Ez zen egia Lasarte-Orian autobusetan murrizketak izango genituela argitaratu zena. Guztiz kontrakoa da. Badakigu inork ez dituela zuzenduko autobus gutxiago aurreikusten zituzten adierazpenak, baina denborak arrazoia kendu die".

Buruntzaldeako herri arteko garraio zerbitzuaren aurreproiektua 2017an aurkeztu zen. Kezka handia sortu zuen, eta hainbat mobilizazio egin ziren 2018an horren aurka murrizketak izango zirelako: Ospitaleetako linea %46 Lasarte-Oriatik Donostiara, %25; Amarara, %25; Andoainera, %25; Hernanira, %46; eta Tolosara, %50.

Mugikortasun Udal plana

Bide batez, urriko udalbatzarrean Gobernu taldeak Mugikortasun Udal Plan bat egiteko konpromisoa hartu zuela gogorarazi du. EAJk plan hori abiatzeko unea dela uste du, "garraio publikoa sustatzen jarraitu behar baitugu, daukagun bidegorri sarea, eta nola ez, gure mozioan proposatzen genuen oinezkoen eta bizikleten lehentasuna, Tajamarretik Ola Kalera doan *30 gunea* probarekin batera". Horregatik, alkate berri Agustin Valdiviari plana martxan jartzea galdegin dio.

TXINTXARRI

Zahartzaroa eta bere gogoetak

Palmira eta Genaro bikotearen istorioaren berri izan zuten larubatean *Espacio disponible* antzerkira hurbildu ziren herritarrek. Jubilatutako bikoteak bere semearen bisita espero du. Alvarok Bruselan lankidetza alorreko kargu bat du eta beraiekin bizitzera eraman nahi ditu gurasoak. Hala uste du behintzat Genarok eta bezperako gauen lo egin ezinik horren inguruko solasaldia izango du emaztearekin. Kontua, ordea, Belgikan egiten duen hotza baino sakonagokoa da. Zahar izateak egungo gizartean zer esan nahi duen hausnartuko dute biek, umoreari tarte eginda.

Lasarte-Oriako greba batzordeak prentsaurrekoa eskaini du asteon. Herritar ugari gerturatu dira Antonio Mercero aretora. TXINTXARRI

"Sistema berri bat" ehuntzeko, grebara

Astebete baino gutxiago falta da urtarrilaren 30eko greba orokorrerako. Lanuztea deitu duten sindikatu eta eragile sozialek batzordeak sortu dituzte herriz herri; Lasarte-Orian ere bai. Agerraldia egin dute, herritarrak parte hartzera animatuz

Txintxarri

"Egun bizi dugun eredu ekonomiko eta soziala sostengaezina da; bai eremu produktiboan, baita erreproduktiboan ere". Gisa horretara ekin diote agerraldi publikoari Lasarte-Oriako greba batzordeko kideek. Urtarrilaren 30eko –osteguna – greba orokorra testuinguruan jarri dute, Euskal Herriko Karta Sozialak prestatutako Aldarrikapen Taularen berri eman, kolektibo bakoitzeko kideek atxikitzeko dituzten arrazoiak esplikatu eta grebaren egunean herrian egingo diren mobilizazioak iragarri.

Herriko greba batzordeko sindikatu eta eragileen ustez, "estrukturala" da prekarietatea lan munduan, eta "gorantz" doa: langabezia, soldata arrakala, eroskahalmenaren galera eta azpikontratazioa aipatu dituzte, besteak beste. Gauza bera gertatu da pentsio publikoekin. "Murrizketak egin dira etengabe". Zehaztu dute prekarietatea "lan eremu formaletik harago" doala: "Bizitza sostengatzeko egitura kolektibo eta publikoak" pairatzen ari dira egoera hori. "Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da; horrek, gainera, izugarrizko genero inpaktua dakar berarekin, prekarizazioaren aurretik existitzen ziren desberdintasun eta zapalkuntzak areagotuz".

Lasarte-Oriako greba batzordeko kideen aburuz, "beharrezkoa" da "zaintza nahiz bizitza erdigunean" jarriko dituen "sistema berri bat" eratzea; "eredu sozioekonomiko alternatibo bat", azken urteetako "aktibazio sozialak" hauspotuta. Datorren asteko osteguneko greba "sistemaren aldaketa erradikala bultatzeko eta ofentsibara pasatzeko mobilizazio erraldoia" izan daitekeela uste dute.

Aldarrikapen Taula

Euskal Herriko Eskubideen Karta Sozialeko sindikatu eta eragileek deitu dute grebara, pentsionistak bi urtez egiten ari diren eskaerak abiapuntutzat hartuz. "Modu zabalago batean planto egin nahi dugu, pentsio, lan baldintza eta bizitza duinaren aldeko borrokan", Aldarrikapen Taula bat ere prestatu dute. Eskaera horietatik zenbait aipatu ditu herriko greba batzordeak: 1.080 euroko gutxieneko pentsioak, zuzeneko zein azpikontratatutako lanetan 1.200 euroko soldata minimoa eta 35 orduko lan-astea; eta generoen arteko soldata arrakala deuseztea, beste batzuen artean.

Maialen Aranburu (ELA sindikatua), Olatz Arozena (LAB sindikatua, Oihane Etxezarreta (gazteen kolektiboa), Saioa Gomez (mugimendu feminista) eta Joxe Manuel Aranburu (pentsionista) izan dira mahaian eseri direnak. Sindikatuetako bi kideek azaldu dute greba orokorraren deialdia nondik datorren eta zein ekintza egingo diren herrian; beste hiruek, aldiz, greba egiteko dauzkaten arrazoien berri eman dute. Hainbat herritar gerturatu dira ekitaldira, eta deialdiarekin bat egin.

U30: ekintzak Lasarte-Orian

Goizean

- **07:30ean,** Hipodromotik, kotxe karabana bat irtengo da lantegietara.
- **08:30ean,** kalebira, herriko komertzioetan zehar.
- **09:30ean,** Urbilera joateko hitzordua, eskualdekoa.
- **11:00etan,** Donostiako manifestaziora joateko deia, trenez edo bizikletaz. 12:30ean hasiko da, Artzain Onetik.
- **Bazkaria** Elizatze plazan, janaria norberak eramanda.

Arratsaldean

- **18:00etan,** manifestazioa, Okendo plazatik.

Txintxarri-ren erabakia U30eko grebari begira

Euskal Herriko Eskubideen Karta Soziala osatzen duten sindikatu eta eragileek greba orokorrera deitu dute datorren asteko ostegunean, urtarrilak 30. Pentsionistek bi urtez etengabe aldarrikatzen ari direnak oinarritzat hartuz, "jauzi bat" egitea erabaki dute, "lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokan". Txintxarri-ko lantaldeko kideek greba egitea erabaki dute, besteak beste, lan munduko hainbat eta hainbat sektoretan gertatu bezala, prekarietatea ere oso presente dagoelako komunikabideetan.

Hori guztia esanda, irakurle, esku artean daukazun aldizkari hau egiten dugun langileok argi daukagu herritar guztiek informaziorako eskubidea daukatela, eta, hori bermatze aldera, urtarrilaren 30ean herrian antolatu diren ekintzen jarraipena egingo du Txintxarri-k, eta aldizkaria inprimatzera bidali, ostegunero bezala, herritarrek ostiralean irakur dezaten azkenaldian Lasarte-Orian gertatu dena, eta greba orokorrak emandakoaren berri izan dezaten. Aldizkariko langileok, beraz, lanuztea egun bat lehenago egitea erabaki dugu; alegia, urtarrilaren 29an, asteazkenez, egun osoz. Webgunea ez dugu eguneratuko egun horretan, eta urtarrilaren 31n zuen etxeetan jasoko duzuen aldizkarian islatuko ditugu greba egin izanaren ondorioak. Gertutasunez eta euskaraz informatzen jarraitu nahi dugulako, baina ahalik eta baldintza duinenetan.

Greba egiteko arrazoiak eta atxikimenduak

Oihane Etxezarreta gazteen kolektiboko kidea da. "Emakumea, 19 urteko gaztea eta bollera: etorkizun beltza, baina borrokarako grina, eta etorkizuna kontatzekoa". Gizarte Langintza ari da ikasten, baina zaintza lan batzuk ere egin izan ditu, "emakume gazteoi egokitzen zaizkigun horietakoak". Inguruko lagunak lan prekarioak egiten dabiltzala dio: "Badirudi lan ordu asko eta soldata baxuak, langabezia, behin-behinekotasuna...direla gazteon patua".

Saioa Gomez irakaslea da herrian, eta Lasarte-Moria mugimendu feministako kidea. "Irakasle, langile eta feminista gisa borrokatu behar ditut sistema heteropatriarkal arrazista eta kapitalista; bizitza eta zaintzak erdigunean jarriko dituen sistema berri bat eraiki behar dugu". Lan munduan, aipatu ditu soldata eta pentsio arrakalak, jazarpenak, pobrezia, langabezia tasa altuagoak... "Eta, eremu horretatik kanpo, zaintza lanak gure gain; greba egunean ere, nork ahalbidetuko du gizon guzti horiek goizean goiz piketeetan egon ahal izatea, adibidez? Nork zainduko ditu bere seme-alabak espazio publikoa okupatu bitartean?".

Joxe Manuel Aranburu pentsionista da. "Bizitza osoa" darama lanean. "Ongi izerditu eta gero, niri zegokidan pentsioan murrizketak pairatzen ari naiz". Etorkizuna "are beltzagoa" ikusten du, borrokatu ezean. "Nirea baino egoera ilunagoak ikusten ditut. Emakume gazte zein pentsiodunena: lehenengoek ez dituzte jasoko pentsioak horrela jarraituz gero; bigarrenek, Anak bezala, 500 euro baino gutxiagoko pentsioarekin eta DBE murriztu batekin osatzen du hileroko diru-sarrera".

Hainbat kolektiboko kideek bat egin dute U30eko grebarekin. Lasarte-Moriako kideek bilera informatiboa eta argazki masiboa egin zituzten iragan larunbatean. Errausketaren Aurkako Mugimenduak asteon iragarri du bat egingo duela lanuztearekin. Pentsionisten herriko koordinakundeak, berriz, ez du aldeko zein aurkako jarrerarik hartu; herritarren esku utzi du greba orokorrarekin bat egin edo ez.

santa teresa
ikastetxea

teresiar eskola
fundazioa

Ongi etorri etorkizunera

943 211 764 | www.teresiareskola.com

secretaria@donostia.teresiareskola.com

GURASOENTZAKO APARKALEKUA

10 LUR HEKTAREA

GURE SUKALDEA

0-18 URTE

Matrikula epea:
Urtarrilak 27 - otsailak 7

'Klaserik klase', danborra joaz...

Danborradak ikastetxeetan

Azken asteetan gogoz entseatu ostean, danborradak ospatu dituzte herriko ikastetxeetan, San Sebastian eguna baino apur bat lehenago; urtarrilaren 17an eraman zituzten soinean sukaldari jantziak zentroetako ikasle eta irakasleek. *Donostiako Martxa* doinuaren letra apur bat moldatuta, esan daiteke *klaserik klase,* danborra joaz...aritu zirela aurrena, eta kalean gero. Sasoeta-Zumaburuko gaztetxoak izan ziren lehenak; arratsaldeko hiruak pasatxo ekin zioten emanaldiari, Isla plazan, guraso eta senideen aurrean.

Lainoek euri-tantei eutsi zietenez, arratsaldeko aurreneko orduetan behintzat, Sasoeta LHko kideak ikastetxeko patioan aritu ziren. Garaikoetxea-Landaberrikoak ere bai, patioan, baina estalitako zatian, badaezpada ere. Hasten azkenak Landaberri LHkoak izan ziren. Izan zuen sorpresarik euren emanaldiak: lankideek antolatuta, omenaldi hunkigarria jaso zuen Josu Garmendia irakasleak danborradan bertan; gaur jubilatuko da, 44 urtez bertan lan egin eta gero.

Garaikoetxea-Landaberriko ikasleek primeran pasa zuten danborrak astintzen. TXINTXARRI

Lainoek euriari eutsi ziotenez, ikastetxeko patioan eskaini zuten emanaldia Sasoeta LHko ikasleek. TXINTXARRI

Isla plazakoa izan zen ostiraleko lehenengo danborrada. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko

Goian, Garaikoetxeako zuzendari gazteak; behean, Sasoeta LHko danbor-jole batzuk. TXINTXARRI

ikasle eta irakasleak aritu ziren han, guraso eta senideen aurrean. TXINTXARRI

Ez zen inor gehiago kabitzen Landaberri LH ikastetxeko anfiteatroan. TXINTXARRI

Sasoeta-Zumaburuko txikiak, danborradaz gozatzen. TXINTXARRI

Josu Garmendia irakasleak omenaldi hunkigarria eta ezustekoa jaso zuen ostiralean; gaur jubilatu da, 44 urte eta gero. TXINTXARRI

aek euskara praktikoa

aek euskara praktikoa

Zu hemen zaude, AEK ere bai

MATRIKULAZIOA ZABALIK

eman izena!

• Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
• Aurrez aurreko eskolak.
• Autoikaskuntza.
• "On-line" aukera.

Muntteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria • 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus

www.muntteri.blogspot.com.es

"Atletismoaz disfrutatzea da nire helburu nagusia"

NAROA FURUNDARENA EUSKADIKO PENTATLOI TXAPELDUNA

Ostadar SKTko atletak 20 urtez azpiko Espainiako txapelketarako gutxienekoa lortu du luzera jauzian. Besteak beste, absolutu mailako txapelketan egotea du helburu

Nerea Eizagirre

Txikitatik hasi zen Naroa Furundarena (Lasarte-Oria, 2001) atletismoan. Korrika egitea gustuko zuen eta Eskola Kiroleko aukeren artean ikusi zuenean, ez zuen dudarik izan. Ama ere atleta izandakoa da eta horrek, eragin duela aitortu du.

Duela hiru urte, "ezustekoz", Espainiako txapelketako sailkapena lortu zuen, eta, geroztik, urtero lehiatu da maila horretan. Gipuzkoako zein Euskadiko Txapelketetan hainbat domina eskuratu ditu. Egun, Gasteizen ikasten du. Bertako talde batekin entrenatzen du astean bitan, baita bakarka ere. Hona bueltzatzen denean, entrenatzeko aukera badu eta lehiaketarik ez badago, ez du bitan pentsatzen eta Michelingo kirol guneko atletismo modulora doa lan egitera. Emaitzak horren erakusle dira. Hilabete hasieran Euskadiko pentatloi txapela jantzi zuen. Ez da denboraldi honetako garaikur bakarra izango, ziur.

Naroa Furundarena entrenamendu batean jauzia egiten. TXINTXARRI

Denboraldia ongi hasi duzu. Euskadiko pentatloi txapeldun izan zara. Espero al zenuen?

Parte-hartzaileen zerrenda argitaratu zutenean, dena ongi bazihoan, txapela lortu ahal nuela ikusi nuen. Maila ez zen oso altua.

Baina bost proba dira eta erraza da edozeinetan hanka sartzea. Banekien denetan txukun ibiliz gero, lortuko nuela.

Gainera, Espainiako txapelketarako gutxienekoa lortu zenuen luzera jauziko proban, 5,39 m.

Bai, horrela da. Denboraldiko helburuetako bat lortu dugu eta lasaiago nago orain.

Urtarrilaren 11n, 5,58ko saltoa egin zenuen proba librean iazko pista estaliko marka (5,50 m.) hobetuz…

Bai, horrela da. Ez nuen espero bigarren lehiaketan marka hori egitea, baina oso pozik nago.

Sei metroak nola ikusten dituzu?

Hori oraingoz oso urruti dago. Jauzi hirukoitzean hobetzea luzera jauzian baino errazagoa da. Azkenean hiru jauzi dituzu, ez duzu guztia bakarrera jokatzen.

Eta markekin jarraituz, iaz udako Espainiako txapelketan jauzi hirukoitzean, lortu zenuen 12 m. langa gainditzea (12,13 m.), baina haizearengatik ez zen baliozkoa izan. Asteburuan 12,03 m. egin dituzu; hori zen denboraldiko beste helburuetako bat?

Bai, horrela da. Ea zer gertatzen den. Udan lortu nuen, baina zuk esan bezala ez zen baliogarria izan haizearengatik. Pista estalian ez dago arazo hori.

Luzera jauzi eta jauzi hirukoitza zure probak direla esan daiteke...

Txikitan proba guztiak egiten genituen eta federatzerako garaian, hobeto ibiltzen nintzen eta gehien gustuko nituen probak horiek zirela ikusi nuen. Horregatik, joan naiz horietan gehiago zentratzen, baina Euskadiko proba konbinatuen txapelketan ikusi den bezala, denetarik egiten dut...

Baina bat aukeratu beharko banu, jauzi hirukoitza aukeratuko nuke. Luzera jauzia, ez dut ia entrenatzen. Luzera jauzia hirukoitzeko lehen jauzia bezala da edo antzekoa eta nire entrenamendu guztia jauzi hirukoitzera dago zuzendua.

Abiadura probak ere egiten dituzu sarri…

Bai, abiadura oso garrantzitsua baita luzera jauzirako. Horregatik, ongi badatorkit, abiadurako probetan ere lehiatzen naiz. Zein egoeran nagoen eta zein markatan nagoen jakiteko ere balio du.

Hurrengo hilabetean, txapelketa ugari izango dituzu. Zein da helburua pista estalian?

Euskadiko proba kobinatuetako txapelketa hau izan da denboraldiari hasiera eman diona. Pixkanaka joango gara ikusten zer gertatzen den txapelketa eta proba libreetan..

Disfrutatzea da nire helburu nagusia. Gero, pistako Espainiako 20 urtea azpiko mailako txapelketan ahalik eta posturik onena lortzea eta ahal bada Espainiako absolutura joatea.

Eta aire librean?

Aire libre denboraldian, ikusiko da. Espainiako txapelketa San Pedro jaietan izango da gainera…

Irakurri elkarrizketa osoa *txintxarri.eus* webgunean

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Tolosa CF
Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN GORENGOA
Oiartzun KE- Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Karla Lekuona, Oiartzunen.

JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Martutene KE B - Ostadar SKT A
Igandea. 17:30. Martutene, Donostian.

JUBENILEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - SANSE B
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

KADETEEN OHOREZKO MAILA
